

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5292

169/2025 EBAZPENA, azaroaren 20koa, Emergentziak erakundeko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Carlos Lafuente Zugasti jauna administrazioko eta kudeaketako zerbitzuburuaren lanpostutik kentzen baita, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Emergentziak erakundeko Langileen Sailean.

Emergentziak erakundeko zuzendari-gerentearen maiatzaren 29ko 55/2025 Ebazpenaren bidez, Carlos Lafuente Zugasti jauna administrazioko eta kudeaketako zerbitzuburu izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Emergentziak erakundeko Langileen Sailean (109. zenbakiko EHAAn argitaratu zen, 2025eko ekainaren 11n).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Carlos Lafuente Zugasti jauna administrazioko eta kudeaketako zerbitzuburuaren lanpostutik kentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Emergentziak erakundeko Langileen Sailean, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko azaroaren 30eko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea, eta interesdunari eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari horren berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2025eko azaroaren 20a.

Emergentziak erakundeko zuzendari-gerentea.

E.B. (460/2020 Ebazpena, ekainaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ordezkapen-araubidea ezartzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Emergentziak Erakunde Sanitarioko Zuzendaritza Gerentziako lanpostu hutsen, absentzien edo gaixotasunen kasuetarako).

Emergentziak erakundeko kudeaketako zuzendaria,
MÓNICA ELENA ZÁRATE GUTIÉRREZ.